

“*Soneko duen alkandoraren lepoa eskuaz altxatu eta sudu
bainan gerturatu du Mirenek, burua eskum aldera
eramanez. Oraindik Andresen usama hartu dezake. Al-
kandora utzi eta esku biak bolanteran eraman ditu. Etxera
ko bidean doa. Bere begietan hiriko argien distira islatzen
da baina Mirenek ez ditu hantek ikusten. Andresen ezpa-
nen irudia baizak, eta haren aboaren zaporea dena
izango balu bezala, mingaina pasatu du ezpatek.*”

elkar

Binakako bakardadea, komunikazio-inkomunikazio arazoak, desiraren eta errealitatearen arteko amildegia, garahonietatik abiatu eta elikatu da Karmele Jaio hamabost istorio hauek idazteko. El asperen laetan atzean egon daitezkeen pentsamenduetatik hirtzen bitartez aritu dikanuz, burutik pasatu baina esan gabe geratzen diren esaldiak azaleratuz.

Giza-harremanen eremu labainkotean eroso baina tentsuz mugitzen daki egileak, pertsonen barrunbe ezku-tuetan arakatzeko, gure nahit eta ezinak begirada zolli bezain delikatuarekin agertzeko.

Ahots berri bat ateratzen da hemen euskal narratibaren plazara. Malentua, noitasuna eta sentiberatasuna ora-kuستن dituen ahotsa, makuluen buru bitioezak ma-rrosten jakingo duena.

ISBN 84-9783-168-3




9 788497 831680



elkar

Hamabost zauri karmele jaio



HAU EZ DA HOLLYWOOD

Ezin du aktorearen izena gogoratu. “Nola zen?”, galdetu dio Luisak bere buruari. Supermerkatuko pasilloaren erdian geldirik geratu da eta begiak itxi ditu, gogoratzeko ahalegina eginez. Baina ezin du. Erosketa-rako orgatik eskuak askatu gabe, begiak ireki eta berri-ro begiratu dio ile zuriko gizonari. “Antz izugarria du. Igual-iguala da”, pentsatu du. Aktore ametikanoaren kopia da gizona. Hainbeste urte dira hura azkenekoz pantailan ikusi zuenetik, Luisak ezin du haren izena gogoratu. “Hau da marka”, esan dio bere buruari. Aktorearen zahartzaroko argazkirik ez du gogoratzen, gazte hil zelako agian, ez daki, baina ziur dago metro batzuetara duen gizonaren iguala izan behar zuela hirurogeita hamar urte ingururekin.

Ile zuriko gizona animalientzako janarien sekzioan dago eta Luisa bertara zuzendu da, bere katuarentzako janariaren bila. Harantz doala, haginka egin die ezpainei, Hollywoodeko izarraren izena gogoratzeko ahaleginetan, baina alferrik. Burura Gregory Peck eta Humphrey Bogart-en izenak etorri zaizkio, baina ez du asmatu. Hirurogei urte bete zituenetik izenak buruan gordetzeko zail-

Ez du sekula ikusi Izar horrela jaten. Platerera bota dion guztia irentsi du. Ile zuriko gizonak arrazoa zuela pentsatu du orduan, nahiz eta pixka bat garestiago izan merezi duela.

Afariko tresnak garbitu ditu eta sofan eseri da, kea botatzen duen kamamila aurrean duela. Izar aurreko butakara igo da. Berari begira dago eta noizbehinka hankak garbitzen ditu mingainarekin.

Izarri begiratu eta supermerkatuko gizona gogoratu du. Alabarena esan eta begiak urtu egin zaizkiola iruditu zaio eta txistua irentsi duela konturatu da. Gizajoa, pentsatu du Luisak, faltan botako du alaba, ziur ez duela asko ikusten. Berak Joseba ikusten ez duen bezala. Ritarekin ezkondu eta Bartzelonara bizitzera joan zenetik, gutxitan ikusten du Luisak bere seme bakarra, Joseba. Gabonetan, udan, aste santu batzuetan... Eta askotan esan dio semeari gehiago etorri behar direla, ilobak hazten ikusi nahi dituela, eta Josebak ere esaten dio, "bai, etorri beharko genuke gehiago... Ea lanean egun batzuk eskatzen ditugun..." Baina egunak aurrera doaz, eta gazteei egunak azkar joaten zaizkiela badaki Luisak, eta ulertzen du, baina hala eta guztiz ere faltan botatzen du Joseba, eta ilobak, Oihana eta Asier.

Gaixotasun zital hark senarra eramán zionean –baidira hamar urte senarra hil zitzaionetik– Joseba eta Rita, artean seme-alabarik gabe, hilabete batez geratu ziren etxean berarekin bizitzen. Gogorregia iruditu zitzaion Josebari aita hil eta hurrengo egunean ama bakarrik uztea. Baina hilabetera, lana zela eta, alde egin behar izan

zuten biek. Hutsik sentitu zuen orduan Luisak etxea. Gela batetik bestera zihoala bere pausoak entzuten zituena eta irratia piztu behar izaten zuen, edo telebista, pauso haien oihartzuna ez entzuteko. Oraindik ere goizetik gauera du Luisak irratia martxan, telebista pizten duen arte.

–Zer egingo nuke zu barik, maitia? –esan dio Luisak bere altzora igo den Izarri.

Lau egun baino ez ditu behar izan Izarrek *Suprême* lata bukatzeko eta gehiagoren bila joan behar izan du Luisak supermerkatuara. Bertara sartzean ile zuriko gizonaren irudia etorri zaio burura. Aktorearen izena gogoratzeko ahalegin berri bat egin du, James Stewart-en izena etorri zaio, baina ez, ez da. Supermerkatuko pasilloetan aurrera doala, bazter guztiak arakatzen ari da begiekin. Gizona aurkitu dezakeela pentsatu du. *Suprême* latén ingurura heldu eta segundo batzuk egon da bertan, badaezpada. Baina ez da agertu. Orduan konturatu da ez duela ile zuriko gizonaren izena ezagutzen. Katuarena bai, Sugar, baina gizonarena ez. Ezta ameriketako aktorearena ere. Medikuari zita eskatu behar diola pentsatu du ondoren.

Sugarren jabea ez da agertu. Luisak azukrea, esnea, atun lata batzuk eta moldeko ogia hartu ditu eta kaxarantz abiatu da. Poltsak eskuetan, ate automatikoa ireki bezain laster kalera atera da eta hara non aurkitu duen ile zuriko gizona, aurrez aurre.

–Arratsalde on –esan dio gizonak, begiak zabal-zabalik.

Bost gutxi. Semearena izandako gela itxi du, baita berea ere. Su txikian duen txokolateari bueltak ematen ari da behin eta berriz, behea hartu ez dezan. Orduan, egongelako erlojua sei kanpaitxo jotzen hasi da.

Bat, bi, hiru, lau, bost... eta seigarrenera heldu den unean bertan, Luisak kolpea eman dio eskuarekin izterrari.

—Gary Cooper! —egin du orduan oihu, eta bere oihuarekin batera txirrinak jo du.

Hemen da. Atean dago. Gary Cooper.

Aita gurea egin du atearen aurrean, gona atondu du, eskumuturrekoak ondo jarri ditu eta, hara doa, atea zabaltzera.

Belarri atzealdeko beroa izan da atea ireki aurretik sentitu duen azkena.

—Sorpresa!

Joseba, Rita, Oihana eta Asier aurkitu ditu ate aurrean. Denak berari begira daude, irribarretsu. Oihanak lore sorta bat du eskuetan.

Zur eta lur geratu da. Txistua irentsi du.

—Ez zenuen espero, ezta, ama? Ba bai, azkenean hemen gaude... Ez galdetu ezer, ez galdetu ezer, lasai egon, konpondu dugu dena lantokietan. Oihana, Asier, emaiozue musutxo bat amamari...

Josebak berbetan jarraitu du denak egongelara abiatu diren bitartean eta Oihana eta Asier *sorpresa, sorpresa* oihukatuz saltoka sartu dira egongelan, baina Luisak ez

du ezer entzuten, ahoen mugimenduak ikusi besterik ez du egiten. Zurbil dago eta isil-isilik.

Egongelako sofan eseri dira, haurrak lurrean. Joseba eta Rita berari begira ditu. Sorpresak eragindako zoriontasun keinu baten zain daudela, isilik geratu dira une batez. Orduan, mutua ematen duen Luisari gauza bakarra atera zaio ahotik:

—Txokolatea nahi?

